

## Sakramentu-liburua

ren (eta batzutan ardoaren) parte bat \*sagrarioan gordetzekoa, gaixoei ministratzeko eta fededunen \*adoraziorako.

Eliza anglikanoak ez du horretan jokabide finkorik eduki, baina orain aski zabaldua dago Aldareko sakramentua gordetzeko ohitura; era berean Eskoziako Eliza episkopalianoan.

Ik. Aldareko sakramentua; Etengabeko adorazioa.

## Sakramentu-liburua

Mendebaldeko Elizaren historian, XIII. menderarte erabiltzen zuten liturgi liburua, \*mezako kanona, \*prefazioak, eta \*kolektak zeuzkana, baina ez irakurgaiak. Eliza erromatarreko nagusienak hauek dira: leondarra, gelasiotarra eta gregoriotarra.

## Sakramentuko sekretua

Sin.: Aitortzako isilpea

Penitentziako sakramentuan egindako bekatuen aitortzan entzundakoa isilpean edukitzeko legea, apaiz aitor-entzulea ezezik, beste nolabait haren berri dakitenak ere, hertsiki behartzen dituena. Lege hori urratzen duen konfesoreak eskoniku-pena du, Sede Santuak bakarrik barka dezakeena, Zuzenbide Kanonikoaren arabera.

Ik. Penitentziako sakramentua.

## Sakratua/Profanoa

Sakratua adierazteko sarritan santua eta donea ere erabiltzen dira.

Erliziozko pentsaeran eta horren ibilerran funts-funtsezkoak izan dira bi kontzeptu horiek. Elkarren aurkako kategorien multzo bikoa da, bizia taxutzeko, ulertzeko eta adierazteko balio duena, eta \*kosmosa bi ordenatan edo barrutitan banatzen duena.

Agerkari edo fenomeno sakratuez eta agerkari edo fenomeno profanoez osotuta ikusi ohi dute erlijiodunek mundua; aurrenak dira: lekuak, gauzak, lagunak, egintzak, etab., kosmosaren ordena sakratua adierazten dutenak eta horko parte direnak; bigarrenak, berriz, arruntak dira eta ez dute sakratuzkoaren zentzurik.

Gehienetan gauza sakratuak begirunez eta beldurrez erabiltzen dituzte, horien inguruan ezarrita dauden debekuak eta aginduak kontutan izanik; gauza profanoak, ordea, era praktikoz eta teknikoz erabiltzen dituzte.

Hala ere, bi kontzeptuek ez dute elkar ukatzen: hau da, gauza bera izan daiteke sakratua gizabanako edo kultura batentzat, eta beste batentzat, berriz, profanoa. Etxea,

adibidez, uler daiteke, jateko, lo egiteko eta izadiko elementuetatik babesteko teila-tupe funtzional eta praktiko soiltzat; baina uler daiteke, baita ere, famili bizierarako \*tenplu gisa edota makrokosmosaren arabera eraturiko eta horrek bizierazten duen mikro-kosmos berezitzat. Horrela, bada, etxea ez da erabilera praktikotarako bakarrik; kosmosak duen ordena sakratuan parte hartzen du, eta sinbolo bidez hori adierazten. Ik. Etxea.

Zerbait sakratutzat hartzearen oinarria, \*Absolutuarekiko, --espazioaren eta denboraren barruan dagoen eta ari denarekiko-- erlijiozko esperientzian datza.

Sakratuzkoa agertzeko bideak aldatu egin dira historian zehar, baina agerkariaren sorburua bera beti berbera gelditzen da. Gaurko munduan sakratuzkoak mintzatzean --eta zenbaitek alferrikakotzat dauka horrelako solasa, mundu modernoan erabat profanoturik omen dagoelako-- zera hau kontutan eduki behar da: horren agerkerak aldatuz doazela eta agerkera berriok hautemateko gauza izan behar duela erlijiodunak.

Gehienetan ondo mugatuta dauzka gauza sakratuak kultura jakin baten barruan erlijiozko tradizioak. Erlijioak zaintzen du sakratuzkoaren alorra. Baina tradizio horrek kulturaren barruan bere eragina galtzean, erlijiodunek irekita egon behar dute eta gauza izan, sakratuzkoa edozein egoeratan, eratan eta lekutan hautemateko, \*Elizaren barruan nahiz kanpoan.

Ik. Hierofania; Misterioa; Sekularpena; Fe-dea.

Daniel Metzger  
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

## Sakrifizioa

Ik. Oparia.

## Sakrilegioa

Sin.: Donautsia

Norbait edo zerbait (gauza nahiz toki) santu edo sakratua edo Jainkoaren gurtzari ofizialki atxekia begirunerik gabe eta desohorez erabiltzea, horien sakratutasuna nolabait urratuz.

Erlizio guztiak gaitzetsi ohi dute sakrilegioa, sarritan delitugileari zehapenak ezarriaz gainera.

Ik. Sakratua/Profanoa; Profanazioa.

## Sakristia

Elizari edo \*kaperari atxekiriko gela, non \*elizkizunetarako jantziak, ontziak, liburuak eta bestelako gauza eta tresnak gor-